

DIRU SARRERAK

Gure produktutik dirua lortu ahal izateko, bezeroen erakarpenei esker lortuko dugu. Gainera, gure herriko udalak proiektua aurrera ateratzeko ekarpenak egingo ditu eta asko lagunduko digu gure produktua jende gehiagori heltzeko.

Bestalde, Athleticeko taldearen ekarpenari esker, jende gehiagori iritsiko zaio albiste hau, talde nahiko garrantzitsu eta ospetsua denez gaur egun. Horri esker, jende

gehiagok ezagutuko luke lortu nahi dugun helburua, eta ekarpen pixka bat egin ahal izango du proiektu honetan.



Gainera, eskerrak eman behar dizkiogu Amorebietako taldeari eta gure lehendakari maiteari, bere laguntzarik gabe ezinezkoa izango litzateke proiektu handi hau jende guztiari heltzea eta, batez ere, gure herriko biztanleei iristea.

Influencerrak ere asko lagunduko dute eta horren truke soldata txiki bat jasoko dute.

Guk dirua lortu ahal izateko, Iñigo Urkullurekin bilera bat egingo dugu eta kontatu egingo diogu zein den gure helburua eta zelan egingo dugun. Berak, gure produktua onartzen badu, asko lagunduko digu. Gainera, herrien udaletxetan herriko biztanlea elkartuko da eta gure produktua azaltzen joango gara herriz herri.

Bestalde, web-orri bat sortu dugu, gure proiektuari buruzko informazio guztia emateko. Web orri honetan izena ematen duen jendeak kontu bat sortu beharko du eta horrela itsasoaren egoeraren berri emango du.

Gero eta bisualizazio gehiago hartu webgune honetan, gure soldata hazten joango da, horrela dirua lortuko dugu.



Gainera, bi lankide Radio Euskadira joango dira, iratiaren bidez gure proiektuaren helburua jakinarazteko. Horri esker, diru gehiago lortuko dugu gure proiektua aurrera ateratzeko.

Erabaki dezagun dirua irabazteko telebistako programekin harremanetan jartzen saiatuko garela; horrela, gure proiektuari garrantzi handiagoa emango diogu eta jende gehiagori iritsiko zaio, horrela, diru kantitate bat irabaziko dugu.